

Enpresen Egiturazko Inkesta (EEI)
2022. urtea

Industriaren, Merkataritzaren eta Finantzaz kanpoko zerbitzuen baterako negozio-zifrak % 22,8ko igoera izan du 2022an

2024ko apirilaren 30a

Industria Sektorearen negozio-zifra guztizkoaren % 58,5 izan da, eta sektore horren produktibitatea izan da, halaber, handiena, Merkataritzaren eta Gainerako zerbitzuen produktibitatearen aurretik

Emakumeen parte-hartzearen tasa % 50etik gorakoa izan da Gainerako zerbitzuen sektorean, txikixeagoa Merkataritzan eta % 27,0koa Industrian

INDUSTRIA-SEKTOREAREN ETA ZERBITZUEN BATERAKO EGITURA

Sektoreen araberako ekarpena urtean. Industriaren eta finantzaz kanpoko zerbitzuen sektoreen (merkataritza barne) baterako **negozio-zifra**, 2022. urtean, 48.130 milioi eurokoa izan da. *Industria-sektoreari* zifra horren erdia baino gehiago dagokio (% 58,5), eta pertsonalaren heren bati baino gehiagori ematen dio lana (% 37,4ri). Era berean, oinarrizko prezioetan balioetsitako balio erantsi gordinari ekarpen handiena egiten dion sektorea da (guztizkoaren % 50,1ekoa). Zerbitzuen sektorearen barruan, nahiz eta *Merkataritzak* izan negozio-zifran *Finantzaz kanpoko gainerako zerbitzuek* baino bolumen eta pisu handiagoa, azken horiek egiten diote balio erantsi gordinari ekarpenik handiena (kontuan hartzen diren hiru sektoreen baterako guztizkoaren herena). *Finantzaz kanpoko gainerako zerbitzuak*, gainera, pertsonal kopuru handiena duena da (guztizkoaren % 45,6).

Bilakaera, aurreko urtearen aldean. Baterako negozio-zifrak % 22,8ko igoera izan du aurreko urtearekin alderatuta, batez ere *Industria Sektoreak* izan duen igoeraren ondorioz (% 27,3ko igoera). Haren atzetik, Merkataritza eta Zerbitzuen sektorea kokatu dira (% 19,2 eta % 12,9ko igoerarekin, hurrenez hurren). Bestalde, oinarrizko prezioetan balioetsitako balio erantsiaren gaineko igoera % 9,7koa izan da. Landunen guztizko kopurua % 1,4 igo da, baina beherakada bat gertatu da Merkataritzaren sektorean (-% 3,1).



1. TAULA


Industriaren, Merkataritzaren eta Zerbitzuen sektoreak. 2022. urtea. Magnitude nagusiak

Sektorea	EJSN-09	Negozio-zifra (milaka €)		Oinarritzko prezioetan balioetsitako BEGd (milaka €)		Pertsonal landuna	
		Milaka €	Gutizko aren %	Milaka €	Gutizko aren %	Kop.	Gutizko aren %
Industriaren sektorea		28.164.041	58,5	5.718.249	50,1	76.174	37,4
Erauzketa-industriak	05-09	34.592	0,1	11.926	0,1	129	0,1
Manufaktura-industriak	10-33	23.889.187	49,6	4.853.739	42,5	71.684	35,2
Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura; uraren hornidura, saneamendu-jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	35-39	4.240.261	8,8	852.584	7,5	4.360	2,1
Merkataritzaren sektorea		13.228.743	27,5	1.955.085	17,1	34.615	17,0
Handizkako eta txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa	45-47	13.228.743	27,5	1.955.085	17,1	34.615	17,0
Finantzaz kanpoko gainerako zerbitzuen sektorea		6.737.253	14,0	3.738.648	32,8	92.798	45,6
Garraioa eta biltegiatzea	49-53	1.501.622	3,1	633.944	5,6	10.986	5,4
Ostalaritza	55-56	971.643	2,0	458.513	4,0	17.242	8,5
Informazioa eta komunikazioak	58-63	515.686	1,1	270.875	2,4	4.042	2,0
Higiezin jarduerak	68	218.871	0,5	119.739	1,0	972	0,5
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	69-75	1.380.845	2,9	828.437	7,3	14.055	6,9
Administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak	77-82	660.611	1,4	459.435	4,0	15.973	7,8
Hezkuntza	85	137.395	0,3	144.157	1,3	5.879	2,9
Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuetakoak	86-88	756.555	1,6	503.094	4,4	13.319	6,5
Jarduera artistikoak, jostetakoak eta entretenimendukoak	90-93	425.507	0,9	219.710	1,9	6.366	3,1
Beste zerbitzu batzuk	95-96	168.519	0,4	100.744	0,9	3.963	1,9
GUZTIRA		48.130.037	100,0	11.411.982	100,0	203.587	100,0

Iturria: Geuk egina, INEk emandako mikrodatuak oinarri hartuta.

1. GRAFIKOA

Industriaren, Merkataritzaren eta Zerbitzuen sektoreak. 2022. urtea. Magnitude nagusiak. Pisu erlatiboa



Jarraian, hiru sektoreetako balio xehatuak jaso dira, bereiz.



INDUSTRIAREN SEKTorea

Urteko magnitude nagusiak eta bilakaera aurreko urtearekin alderatuta. Magnitude guztien balioa handitu da, eta guztiek gaintu dituzte COVID-19aren aurreko balioak. 2021. urtearekin alderatuta, negozio-zifra, ekoizpena, tarteko kontsumoak eta ustiatzearen soberakin gordina % 30 inguru igo dira, eta balio erantsi gordinak % 12,9ko igoera izan du. Pertsonal landunen kopuruak % 3,7ko igoera izan du, eta soldatakoen ordainsariak % 5,4koa.

2. TAULA

Industriaren sektorea. 2022. urtea. Magnitude nagusiak

Aldagai ekonomikoak	Balioa (milaka €)	Urteko aldakuntza (%)
Negozio-zifra	28.164.041	27,3
Ekoizpena oinarritzko prezioetan	26.096.343	25,7
Tarteko kontsumoak	20.378.095	29,8
Balio erantsi gordina oinarritzko prezioetan	5.718.249	12,9
Soldatakoen ordainsaria	3.260.370	5,4
Ustiatzearen soberakin gordina	2.364.017	26,1
Pertsonal landuna (persona kop.)	76.174	3,7

Iturria: Geuk egina, INEk emandako mikrodatuak oinarri hartuta.

Pisua Espainiarekin alderatuta. Nafarroari % 3,1eko parte-hartzea dagokio Espainiako industriaren negozio-zifran 2022an, eta % 3,3ra iritsi da (hamarren bat gehiago) pertsonal landunaren zifran duen parte-hartzea.

Jardueren araberako emaitzak. Negozio-zifraren pisurik handiena duen jarduera *Motordun ibilgailuen eta beste garraio-material baten fabrikazioa* izan da. Jarduera horren parte-hartzea aurreko urtearekin alderatuta puntu bat txikiagoa izan bada ere, guztizkoaren ia laurdena dagokio. *Nekazaritzako elikagaien industriari* fakturazioaren % 19,1 dagokio (adar horretan, *Fruta eta barazkien prozesatzea eta kontserbazioa* nabarmentzen da, zeinari fakturazioaren % 6,2 baitagokio), eta, ondoren, *Energia elektrikoaren eta gasaren ekoizpen eta banaketari* % 15,1. *Jantzigintza eta larrugintza* salbuetsita, industria-jarduera guztiek igoerak izan dituzte negozio-zifran, 2021. urtearekin alderatuta.

Pertsonal landunak aurreko urtearekin alderatuta jardueraren arabera izan duen bilakaerari dagokionez, *Jantzigintzan eta larrugintzan* enpleguak behera egin du, baita, neurri txikiagoan bada ere, *Mineral ez metalikoetan, Edarigintza eta tabakogintzan eta Motordun ibilgailuen eta beste garraio-material baten fabrikazioan* ere. Gainerako jardueretan, bilakaera goranzkoa izan da, balioak desberdinak izan badira ere.



3. TAULA

Industriaren sektorea. Emaitzak, jarduera-adarren arabera. 2022. urtea

Jarduera	EJSN-09	Negozio-zifra (milaka €)			Pertsonal landuna		
		Milaka €	Gutziz koaren %	Urteko aldakuntza (%)	Kop.	Gutziz koaren %	Urteko aldakuntza (%)
Erauzketa-industriak	05-09	34.591,85	0,1	6,7	129	0,2	36,0
Haragi-industriak	101	984.483,68	3,5	36,3	2.686	3,5	10,1
Beste elikadura-industria batzuk	102, 104, 106-109	1.990.456,73	7,1	27,6	5.965	7,8	4,2
Barazkiak	103	1.744.538,53	6,2	14,5	6.166	8,1	0,3
Esneki-industria	105	150.456,04	0,5	20,5	523	0,7	13,4
Edarigintza eta tabakogintza	11-12	516.551,37	1,8	11,8	1.613	2,1	-2,3
Ehungintza	13	53.128,87	0,2	0,3	402	0,5	4,4
Jantzigintza eta larrugintza	14	39.783,47	0,1	-21,0	322	0,4	-31,1
Larruaren eta oinetakoen industria	15	26.093,75	0,1	7,3	165	0,2	20,5
Zuraren eta kortxoaren industria	16	265.194,58	0,9	23,4	1.253	1,6	10,3
Papergintza	17	1.059.769,46	3,8	29,3	2.362	3,1	4,3
Edizioa eta arte grafikoak	18	187.145,52	0,7	33,6	1.067	1,4	15,2
Industria kimikoa eta farmazeutikoa	20-21	1.072.838,83	3,8	18,1	3.072	4,0	7,0
Kautxuaren eta materia plastikoen industria	22	1.085.669,27	3,9	27,3	3.916	5,1	13,3
Mineral ez-metalikoak	23	723.839,36	2,6	19,4	2.036	2,7	-2,4
Metalurgia	24	1.454.556,37	5,2	23,8	3.248	4,3	3,9
Produktu metalikoen fabrikazioa	25	1.891.858,70	6,7	17,8	7.931	10,4	5,7
Material elektrikoaren, elektronikoaren eta optikoaren fabrikazioa	26-27	1.011.024,20	3,6	17,6	5.075	6,7	1,3
Makineria eta ekipo mekanikoa	28	2.248.059,52	8,0	3,7	7.343	9,6	2,4
Motordun ibilgailuen eta bestelako garraio-materialaren fabrikazioa	29-30	6.934.872,21	24,6	32,6	12.423	16,3	-2,2
Askotariko manufaktura-industriak, makineriaren eta ekipoaren konponketa eta instalazioa	31-33	448.866,84	1,6	14,2	4.117	5,4	0,0
Energia elektrikoaren eta gasaren ekoizpena eta banaketa	35-39	4.240.261,42	15,1	63,1	4.360	5,7	21,6
GUZTIRA		28.164.040,58	100	27,3	76.174	100	3,7

Iturria: Geuk egina, INEK emandako mikrodatuak oinarri hartuta.

MERKATARITZAREN SEKTOREA

Urteko magnitude nagusiak eta bilakaera aurreko urtearekin alderatuta. Aztertutako magnitude guztiek igoerak izan dituzte 2022an, pertsonal landunak izan ezik. Igoerarik handienak negozio-zifrak eta soldatuen ordainsariak izan dituzte (% 19,2 eta % 12,6ko igoera, hurrenez hurren).



CONTACTO | HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00

4. TAULA

Merkataritza. 2022. urtea. Magnitude nagusiak

Aldagai ekonomikoak	Balioa (milaka €)	Urteko aldakuntza (%)
Negozio-zifra	13.228.743	19,2
Ekoizpena oinarritzko prezioetan	3.470.882	7,6
Tarteko kontsumoak	1.515.797	8,8
Balio erantsi gordina oinarritzko prezioetan	1.955.085	6,7
Soldatakoen ordainsaria	997.363	12,6
Ustiatzearen soberakin gordina	938.507	1,1
Pertsonal landuna (pertsona kop.)	34.615	-3,1

Iturria: Geuk egina, INEk emandako mikrodatuak oinarri hartuta.

Pisua Espainiarekin alderatuta. Espainia osoko Merkataritza kontuan hartuta, Nafarroak % 1,3ko parte-hartzea izan du negozio-zifran, eta % 1,1ekoa pertsonal landunaren kopuruan.

Jardueren araberrako emaitzak. *Handizkako merkataritza eta bitartekariak* jarduera da negozio-zifrarik handiena izan duena (merkataritza-jardueraren erdia baino gehiago). Gainera, urtean igorarik handiena izan duena da. *Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketa* jarduerak negozio-zifran eta pertsonal landunean bilakaera homogeenak izan baditu ere, *Handizkako merkataritza eta bitartekariak* eta *Txikizkako merkataritza* jardueretan bilakaera bestelakoa izan da. Izan ere, negozio-zifrak gora egin du, baina pertsonal landunak behera.

5. TAULA

Merkataritza. Emaitzak, jarduera-adarren arabera. 2022. urtea

Sektorea	EJSN-09	Negozio-zifra (milaka €)			Pertsonal landuna		
		Milaka €	Gutiz koaren %	Urteko aldakuntza (%)	Kop.	Gutiz koaren %	Urteko aldakuntza (%)
Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketa	45	1.513.379,76	11,4	14,1	4.579	13,2	13,0
Handizkako merkataritza eta bitartekariak	46	7.379.209,39	55,8	23,8	11.163	32,2	-0,6
Txikizkako merkataritza	47	4.336.154,20	32,8	13,8	18.873	54,5	-7,7
GUZTIRA		13.228.743,35	100	19,2	34.615	100	-3,1

Iturria: Geuk egina, INEk emandako mikrodatuak oinarri hartuta.

FINANTZAZ KANPOKO GAINERAKO ZERBITZUEN SEKTOREA

Urteko magnitude nagusiak eta bilakaera aurreko urtearekin alderatuta. Magnitude guztien baloreek gora egin dute. Nolanahi ere, Soldatakoen ordainsariak izan duen iguera nabarmendu da (% 8,5ekoa), pertsona landunen kopuruaren igorerarekin alderatuta (% 1,3koa).



CONTACTO | HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00

6. TAULA

Finantzaz kanpoko gainerako zerbitzuak. 2022. urtea. Magnitude nagusiak

Aldagai ekonomikoak	Balioa (milaka €)	Urteko aldakuntza (%) (*)
Negozio-zifra	6.737.253	12,9
Ekoizpena oinarritzko prezioetan	6.923.416	11,4
Tarteko kontsumoak	3.184.767	17,6
Balio erantsi gordina oinarritzko prezioetan	3.738.648	6,6
Soldatakoen ordainsaria	2.464.214	8,5
Ustiatzearen soberakin gordina	1.223.912	2,5
Pertsonal landuna (persona kop.)	92.798	1,3

Iturria: Geuk egina, INEk emandako mikrodatuak oinarri hartuta.

Pisua Espainiarekin alderatuta. Espainia osoan, Nafarroak % 0,9ko pisua du kontuan hartutako zerbitzuen negozio-zifran, eta % 1,1ekoa pertsonal landunen kopuruan.

Jardueren araberako emaitzak. *Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak* dira pisu handiena dutenak guztizko **negozio-zifran** (% 18,9). Gainera, haien parte-hartzeak gora egin du, eta % 20,5era iritsi da. *Ostalaritzaren* pisuak ere gora egin du, eta % 14,4ra iritsi da. *Garraioa eta Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuetakoak* jardueren pisuak, berriz, % 12,7koa eta % 11,2koa izan dira 2022an, hurrenez hurren. Aurreko urtearekin alderatuta, jarduera gehienek igoerak izan dituzte fakturazioan, eta *Ostalaritza* nabarmendu da, % 51,2ko igoerarekin. Beherakadarik handiena, berriz, *Higiezinaren jarduerak* izan dute (-% 40,7). Hain zuzen ere, azken horiek izan dute beherakadarik handiena **pertsonal landunaren** kopuruan (-% 63,8). *Informazioa eta komunikazioak* eta *Hezkuntza* jardueren kasuan, berriz, igoera bat izan da (% 34,5ekoa eta % 18,8koa, hurrenez hurren).



7. TAULA

Finantzaz kanpoko gainerako zerbitzuak. Emaitzak, jarduera-adarren arabera. 2022. urtea

Sektorea	EJSN-09	Negozio-zifra (milaka €)			Pertsonal landuna		
		Milaka €	Gutiz koaren %	Urteko aldakuntza (%)	Kop.	Gutiz koaren %	Urteko aldakuntza (%)
Ostalaritza	55-56	971.643,08	14,4	51,2	17.242	18,6	10,4
Garraioa	49-51	853.956,08	12,7	6,4	6.912	7,4	-6,9
Garraioei erantsitako jarduerak	52-53	647.666,28	9,6	20,3	4.074	4,4	8,7
Informazioa eta komunikazioak	58-63	515.685,51	7,7	17,7	4.042	4,4	34,5
Higiezin jarduerak	68	218.870,79	3,2	-40,7	972	1,0	-63,8
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	69-75	1.380.844,59	20,5	22,7	14.055	15,1	-4,9
Administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak	77-82	660.611,41	9,8	17,4	15.973	17,2	7,3
Hezkuntza	85	137.394,71	2,0	-1,6	5.879	6,3	18,8
Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuetakoak	86-88	756.554,54	11,2	-1,1	13.319	14,4	-7,4
Jarduera artistikoak, jostetakoak eta entretenimendukoak	90-93	425.507,01	6,3	-7,5	6.366	6,9	-0,8
Beste zerbitzu batzuk	95-96	168.519,37	2,5	33,3	3.963	4,3	5,5
GUZTIRA		6.737.253,37	100	12,9	92.798	100	1,3

Iturria: Geuk egina, INEK emandako mikrodatuak oinarri hartuta.

JARDUERA-ADIERAZLE NAGUSIAK

Azkenik, jarraian lau adierazleren balioak aurkezten dira, aztertutako hiru sektoreetako jarduera heterogeneoen arteko aldeak agerian uzten dituztenak. *Produktibitateak* landun bakoitzak enpresaren errenten sorrerari egiten dion ekarpena adierazten du; *balio erantsiaren tasak* produktu-unitate bakoitzeko errentak sortzeko gaitasunari buruzko informazioa ematen du; *batez besteko pertsonal-gastuek* gastu horiek ordaindutako pertsonalarekin lotzen dituzte, eta *emakumezkoek ordaindutako pertsonalean duten parte-hartzearen tasak* ordaindutako enpleguan emakumeek duten proportzioa adierazten du.



8. TAULA

Industriaren, Merkataritzaren eta Zerbitzuen sektoreak. 2022. urtea. Adierazle nagusiak

Jarduera	EJSN-09	Produktibitate (€) ⁽¹⁾	Balio erantsiaren tasa (%) ⁽²⁾	Batez besteko pertsonal-gastuak (€) ⁽³⁾	Emakumezkoek ordaindutako pertsonalean duten parte-hartzearen tasa (%) ⁽⁴⁾
Industriaren sektorea		75.068,38	21,9	44.567,93	27,0
Erauzketa-industriak	05-09	92.318,03	34,3	53.704,87	9,7
Haragi-industriak	101	42.631,81	11,6	34.806,52	37,4
Beste elikadura-industria batzuk	102, 104, 106-109	60.927,51	18,5	34.971,60	43,6
Barazkiak	103	43.832,26	15,1	29.597,66	47,8
Esneki-industria	105	42.124,66	14,6	35.807,95	42,9
Edarigintza eta tabakogintza	11-12	72.316,39	22,2	41.447,69	26,1
Ehungintza	13	37.739,25	30,4	31.332,49	44,1
Jantzigintza eta larrugintza	14	32.475,15	27,2	30.394,90	78,7
Larruaren eta oinetakoaren industria	15	34.366,51	20,9	31.370,78	18,6
Zuraren eta kortxoaren industria	16	61.465,48	29,9	37.879,24	16,3
Papergintza	17	102.228,35	22,7	54.155,08	16,3
Edizioa eta arte grafikoak	18	56.993,66	32,1	39.880,73	18,2
Industria kimikoa eta farmazeutikoa	20-21	114.831,65	36,9	58.000,95	43,5
Kautxuaren eta materia plastikoaren industria	22	77.969,17	28,5	46.050,13	30,5
Mineral ez-metalikoak	23	112.301,75	31,2	49.254,31	14,9
Metalurgia	24	91.581,86	19,8	48.611,14	11,8
Produktu metalikoen fabrikazioa	25	69.573,39	29,1	43.361,31	14,1
Material elektrikoaren, elektronikoaren eta optikoaren fabrikazioa	26-27	55.667,83	30,2	47.318,65	32,5
Makineria eta ekipo mekanikoa	28	47.734,72	16,6	51.171,60	17,6
Motordun ibilgailuen eta bestelako garraio-materialaren fabrikazioa	29-30	80.888,57	14,6	47.835,05	22,2
Askotariko manufaktura-industriak, makineriaren eta ekipoaren konponketa eta instalazioa	31-33	44.307,13	39,0	38.624,81	20,8
Energia elektrikoaren eta gasaren ekoizpena eta banaketa	35-39	195.526,48	34,4	55.738,73	27,6
Merkataritzaren sektorea		56.481,20	56,3	34.756,90	47,4
Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketa	45	56.321,29	37,9	38.878,03	15,6
Handizkako merkataritza eta bitartekariak	46	68.627,73	55,9	40.276,64	29,9
Txikizkako merkataritza	47	49.335,72	65,5	29.864,53	67,8
Finantza kanpoko gainerako zerbitzuen sektorea		44.687,22	54,8	33.243,09	53,1
Ostalaritza	55-56	26.592,75	46,7	23.435,27	59,5
Garraioa	49-51	52.177,92	39,4	37.493,73	14,1
Garraioei erantsitako jarduerak	52-53	67.084,41	41,3	34.873,26	33,7
Informazioa eta komunikazioak	58-63	67.019,69	52,4	42.285,79	37,7
Higiezin jarduerak	68	123.127,54	59,5	42.645,65	56,8
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	69-75	58.944,49	57,0	53.730,70	49,7
Administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak	77-82	28.762,64	72,6	26.145,65	50,8
Hezkuntza	85	24.520,07	76,4	25.627,61	74,4
Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuak ⁽⁴⁾	86-88	37.771,37	64,0	34.944,69	78,2
Jarduera artistikoak, jostetakoak eta entretenimendukoak ⁽⁴⁾	90-93	34.510,70	51,7	28.341,04	54,8
Beste zerbitzu batzuk	95-96	25.419,65	63,3	20.707,76	77,8

Iturria: Geuk egina, INEk emandako mikrodatuak oinarri hartuta.

(1) Produktibitatea: balio erantsi gordinaren eta urteko landun kopuruaren arteko zatidura

(2) Balio erantsiaren tasa: balio erantsi gordinak ekoizpenaren balioari dagokionez adierazten duen proportzioa.

(3) Batez besteko pertsonal-gastuak: pertsonalaren guztizko gastuen eta ordaindutako batez besteko pertsonalaren arteko zatidura.

(4) Emakumezkoek ordaindutako pertsonalean duten parte-hartzearen tasa: ordaindutako emakumeen kopuruaren proportzioa ordaindutako pertsonal kopuru osoaren gainean (bi aldagaiak urteko batez besteko gisa)



CONTACTO | HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00



OHAR METODOLOGIKOA

Enpresen Egiturazko Estatistikak Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) garatutako hiru estatistika-eragiketa jasotzen ditu:

- Enpresen Egiturazko Estatistika: Industriaren sektorea
 - Enpresen Egiturazko Estatistika: Merkataritzaren sektorea
- Enpresen Egiturazko Estatistika: Finantzaz kanpoko zerbitzuen sektorea (Merkataritza salbu). Eragiketa horiek aukera ematen dute aztertutako hiru sektoreetako enpresen egitura- eta ekonomia-ezaugarri nagusiak ezagutzeko, besteak beste: pertsonal landuna, negozio-zifra, soldatuen ordainsaria, tarteko kontsumoak, ustiatzearen soberakin gordina eta abar.

Eragiketa mota: egiturazkoa, urtean behingoa.

Populazio-eremua:

- Industriaren sektorea: EJSN-09ko B eta E sekzio bitartekoak deskribatzen dituzten jardueri dagozkien enpresak: erauzketa- eta manufaktura-industriak, energiaren, gasaren eta uraren hornidura eta saneamendu-jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa.
- Zerbitzuen sektorea: EJSN-09ko H, I, J, L, M, N, P, Q, R sekzioek eta 95. eta 96. dibisioek deskribatzen dituzten jardueri dagozkien enpresak. Hezkuntzako eta Osasuneko jarduerak (P eta Q sekzioak) lehen aldiz sartu dira 2021. erreferentziako urtean, eta hura kontuan hartu behar da, aurreko urteekin alderaketak egiten badira.
- Merkataritzaren sektorea: EJSN-09ko G sekzioak jasotzen dituen jardueri dagozkien enpresak.

Nastatek, INEk bezala, estatistika horiek hiru eragiketa desberdin gisa jasotzen ditu. INEk ez bezala, Nastatek ere merkataritza sartzen du haren datu publikatuetan, Zerbitzuen sektoreko jardueren artean. Ohar honetan, bikoiztasunik egon ez dadin, bereiz aurkezten dira.

Eremu geografikoa: Espainia.

Emaitzak zer erreferentzia-aldiri dagozkion: urte naturala, salbuespenak kenduta, enpresaren kontabilitate-ekitaldiarekin bat datorrena. Kontabilitate-ekitaldia urte naturalarekin bat ez badator, informazioa inkestaren erreferentziako urtean amaitu zen denboraldiari edo kanpainari dagokio. Pertsonal landunaren kasuan, informazioa erreferentziako urteko irailaren 30ari dagokio. INEk 18 hileko epean jasotzen ditu emaitzak, erreferentziako aldiaren amaieratik aurrera zenbaten hasita.

Bilketa-metodoa: informatzaileak galdetegia betetzea, funtsean Internet bidez (IRIA sistema), eta zerga-jatorrizko administrazio-iturriak eta Gizarte Segurantzakoak erabiltzea.

Estatistika-unitatea: Enpresen Egiturazko Estatistikek Enpresaren estatistika-kontzeptuaren aplikazio praktikoa ezarri dute 2018tik. Ikuspegi berri horrekin, enpresa bat Lege Unitate batek edo batzuek era dezakete eta, azken kasu horretan, Estatistika Enpresak hura eratzten duten Lege Unitateen aldagai



ekonomikoak eta enplegu-aldagaiak laburtuko ditu (aurretik, Lege Unitate bakoitza, bereiz, enpresatzat jotzen zen).

Emaitzak autonomia-erkidegoen arabera eskuratzeko, INEk estatistika-unitatetzat jotzen du hiru estatistika-eragiketa horietako bakoitzeko eremu sektorialari (industria, zerbitzuak edo merkataritza) dagokion jarduera nagusia duen Unitate Lokala. Estatistika-unitate horiek beste sektore batzuetan jasotzen den jarduera betetzen duten Enpresen zati izan daitezke eta, kasu horretan, Enpresa-mailako datuak ez dira sektorean bertan egongo. Gainera, lokalen arabera eskualde-datuetan, ez dira aplikatzen barneko fluxuen finkapenak enpresako.

Laginketaren tamaina: Espainia osoan, 37.937 unitate industria-sektorean, 112.965 unitate zerbitzuen sektorean eta 53.688 unitate merkataritza-sektorean. INEk Nafarroari dagozkion mikrodatuak ematen dizkio Nastati, eta haietan oinarrituta prestatzen du eskaintzen duen informazioa. Lagina nahiko adierazgarria da autonomia-erkidegoaren mailan jarduera bakoitzerako.



INFORMAZIO GEHIAGO

Nastat

Enpresen egiturazko inkesta. Industriaren sektorea.

Enpresen egiturazko sektorea. Merkataritzaren sektorea.

Enpresen egiturazko inkesta. Finantzaz kanpoko gainerako zerbitzuen sektorea.



CONTACTO | HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00

